KULTURNIETA, S.A.

I.F.Z. A-20432365

URNIETAKO KULTUR IKASTARO ETA TAILERRAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK.	**PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN POR PROCEDIMIENTO ABIERTO DE LOS CURSOS Y TALLERES DE CULTURA DE URNIETA.**
AURKIBIDEA:	**ÍNDICE:**
1. KULTUR IKASTAROEN HELBURUAK 2. KONTRATUAREN XEDEA 3. BALDINTZA OROKORAK *4.* LOTEEN DESKRIBAPENA: *4.1.- 1 LOTEA: Dantza ikastaroak* *4.2.- 2 LOTEA: UUAT* *4.3.- 3 LOTEA: Arte eta kultura ikastaroak*	1. OBJETIVOS DE LOS CURSOS DE CULTURA 2. OBJETO DEL CONTRATO 3. CONDICIONES GENERALES 4. DESCRIPCIÓN DE LOS LOTES: *4.1.- LOTE 1: Cursos de danza* *4.2.- LOTE 2: UUAT* *4.3.- LOTE 3: Cursos de arte y cultura*
1.- KULTUR IKASTAROEN HELBURUAK	**1.- OBJETIVOS DE LOS CURSOS DE CULTURA**
Udalak bere eginkizunen artean du Urnietako biztanle guztiei kulturara sarbidea erraztea genero, jatorri, nortasun, kultura, erlijio... arrazoiengatik bereizketarik egin gabe eta, halaber, kultura-ohiturak sustatzea. Helburu hori lortzeko, hainbat jarduera eskaintzen ditu eta zerbitzu publikoak ematen ditu, komunitatearen beharrak bete daitezen laguntzearekin batera. Urnietako Udalak Kulturnieta SA udal sozietatearen bitartez kudeatzen ditu kultura-zerbitzuak. Kultura zerbitzuen baitan arte espresio desberdinak sustatzeko ikastaroak eta tailerrak antolatzen ditu Kulturnieta SAk: dantza ikastaroak, antzerki tailerra eta arte eta kultura ikastaroak.	El ayuntamiento tiene entre sus objetivos facilitar el acceso a la cultura al conjunto de la población urnietarra, sin sesgos de género, procedencia, identidad, cultura, religión…además de favorecer los hábitos culturales. Para poder lograr ese fin, ofrece varias actividades y servicios públicos, a la vez que colabora en la satisfacción de las necesidades de la comunidad. El ayuntamiento de Urnieta gestiona los servicios culturales a través de la sociedad municipal Kulturnieta SA. Dentro de los servicios de cultura Kulturnieta S.A. organiza cursos y talleres para fomentar distintas expresiones arísticas: cursos de danza, taller de teatro y cursos de arte cultura.
2.- KONTRATUAREN XEDEA	**2.- OBJETO DEL CONTRATO**
Baldintza-orri hauen xedea da kulturaren	El objeto del presente pliego es la prestación

BORRADOR

sustapenaren baitan artearen inguruko formakuntza zerbitzuak eskaintzeko baldintzak arautzea.	de servicios de formación artística dentro de la promoción de la cultura.
Zerbitzuak LOTEetan banatuko dira modu honetan:	Los servicios se distribuirán en LOTES de la siguiente manera:
1 LOTEA: Dantza ikastaroak 2 LOTEA: Urnietako Udal Antzerki tailerra (UUAT) 3 LOTEA: Arte eta kultura ikastaroak	LOTE 1: cursos de danza LOTE 2: taller de Teatro Municipal de Urnieta (UUAT) LOTE 3: cursos de arte y cultura
3. BALDINTZA OROKORRAK	**3. CONDICIONES GENERALES**
Enpresa esleipendunaren betebeharrak	***Obligaciones de la empresa adjudicataria***
- Ikastaro desberdinak emateko ardura izango duten langileak norberaren kontura kontratatzeaz, eratorritako izapide guztiez eta beharrezko langileen ordainketaz eta jarraipenaz arduratzea.	- Encargarse de contratar por cuenta propia al personal encargado de impartir los diferentes cursos y de todos los trámites derivados, así como del pago y seguimiento del personal necesario.
- Kontratu honen xede diren zerbitzuak inola ere ez aldatzea aldi baterako ezgaitasunaren, oporren, baimenen, oro har absentismoaren edo bestelako gorabeheren ondorioz; enpresa esleipendunak une oro bermatu beharko du zerbitzu egokia ematen dela.	- No modificar en ningún caso los servicios objeto del presente contrato como consecuencia de incapacidad temporal, vacaciones, permisos, absentismo en general u otras circunstancias, debiendo la empresa adjudicataria garantizar en todo momento la adecuada prestación del servicio.
- Kulturnieta SArekin beharrezko komunikazioa izatea, larritasunagatik hala eskatzen duten gertakarien berri ematea ahalik eta lasterren, eta idatziz erregistratzea.	- Mantener la comunicación necesaria con Kulturnieta, S.A., comunicar los hechos que por su gravedad así lo requieran a la mayor brevedad posible y registrarlos por escrito.
- Kontratuaren indarraldian zehaztutako eginkizunei buruzko dokumentazio guztia zaintzea eta kontratuaren arduradunari helaraztea, erabili dezan.	- Custodiar toda la documentación relativa a las funciones especificadas durante la vigencia del contrato y hacerla llegar al responsable del contrato para su uso.
- Herritarrei emango zaien zerbitzuak kalitate-baldintza nahikoak izatea bermatzea.	- Garantizar que la prestación de servicios a la ciudadanía se realice en condiciones de calidad suficientes.
- Erabiltzaileen segurtasuna bermatzea.	- Garantizar la seguridad de las personas usuarias.
- Instalazioak erabiltzeko behar den diziplina mantentzea, arauak betez eta betearaziz.	- Mantener la disciplina necesaria en la utilización de las instalaciones, cumpliendo y haciendo cumplir las normas.
- Esleipendunari atxikitako ondasunen	- Respetar y hacer respetar el orden y

ordena eta zaintza errespetatzea eta errespetaraztea. - KULTURNIETA SAren ikuskapen teknikoaren eta ezarritako irizpideen arabera eskaintzea zerbitzuak. ***Erakunde kontratatzailearen eginkizunak*** Kulturnieta SAk honako eskumen hauek izango ditu: - Enpresa esleipendunak eskainitako zerbitzuen kudeaketaren kalitatea zuzentzea, gainbegiratzea, kontrolatzea eta ebaluatzea. - Esleituriko zerbitzuekin loturiko jarduerak ikuskatzeko eta enpresa esleipendunak bere gain hartu dituen eginbeharrak betetzen dituela egiaztatzeko. Halaber, kontratuaren baldintza teknikoak eta zerbitzuaren gainerako xehetasunak (ordutegia...) betetzen dituela ikuskatu ahal izango du. - Instalazioak erabiltzeko arauak zehaztea: irekiera eta itxiera jarraibideak eman, instalazioen erabilera egokia arautu. **4.- LOTEEN DESKRIBAPENA: BALDINTZA OROKORRAK ETA ESLEIPENDUNAK ESKAINI BEHARREKO ZERBITZUAK** ***<u>4.1.- 1 LOTEA: Dantza ikastaroak</u>*** *Dantza ikastaroen kudeaketa eta gauzatzea.* **DANTZA IKASTAROEN EZAUGARRIAK** Haur eta gazteentzat ikasturteko iraupena duten dantza ikastaroak dira. Urritik maiatzera artean gauzatuko dira astelehenetik ostiralera.	custodia de los bienes adscritos al adjudicatario. - Prestar los servicios de acuerdo con la inspección técnica de KULTURNIETA, S.A. y los criterios establecidos. ***Funciones de la entidad contratante*** Kulturnieta, S.A. tendrá las siguientes competencias: - Dirigir, supervisar, controlar y evaluar la calidad en la gestión de los servicios ofertados por la empresa adjudicataria. - Inspeccionar las actividades relacionadas con los servicios adjudicados y verificar el cumplimiento de las obligaciones asumidas por la empresa adjudicataria. Asimismo, podrá supervisar el cumplimiento de las condiciones técnicas del contrato y demás especificaciones del servicio (horario …). - Definir las normas de uso de las instalaciones, dando instrucciones de apertura y cierre, regulando el uso adecuado de las instalaciones. **4.- DESCRIPCIÓN DE LOS LOTES: CONDICIONES GENERALES Y SERVICIOS A PRESTAR POR EL ADJUDICATARIO** ***<u>4.1. - LOTE 1: cursos de danza</u>*** *Gestión y realización de cursos de danza.* **CARACTERISTICS DE LOS CURSOS DE DANZA** Son cursos de danza con duración de un curso para niños/as y jóvenes. Se realizarán de lunes a viernes de octubre a mayo.

Eskaeraren arabera, maila desberdinetan emango dira ikastaroak: hastapen mailatik hasi eta maila aurreratura arte.	En función de la demanda, los cursos se impartirán en diferentes niveles, desde el nivel de iniciación hasta el nivel avanzado.
Talde kopurua matrikulaketaren arabera zehaztuko da. Taldeko ikasleen gutxieneko eta gehieneko kopurua matrikulaketa amaitzean erabakiko du Kulturnieta SAk da. Gutxieneko ikasle kopurua egon ezean, bertan behera geratuko da ikastaroa.	El número de grupos se determinará en función de la matriculación. El número mínimo y máximo de alumnos y alumnas del grupo será el que decida Kulturnieta, S.A. al finalizar la matriculación. En caso de no existir un número mínimo de alumnado, el curso será suspendido.
ESKAINI BEHARREKO ZERBITZUAK eta BETEBEHARRAK	**SERVICIOS Y OBLIGACIONES A PRESTAR**
Dantza ikastaroak eskaintzearen zerbitzuaren baitan ondorengo lan eta betebehar hauek sartuko dira:	*Se incluirán las siguientes tareas y obligaciones para* el servicio de cursos *de* danza:
1. Esleipendunaren betebeharra izango da dantza ikastaroak ematea.	*2.* Será obligación del adjudicatario impartir los cursos de danza.
2. Esleipendunaren betebeharra izango da dantza ikastaroak gauzatzeko material egokia jartzea eta material hau egoera onean mantentzea ere. Erreferentzia gisara: zinta elastikoak, makilak, kuxinak, uztaiak...	3. Será obligación del adjudicatario la colocación del material adecuado para el desarrollo de los cursos de danza y su mantenimiento en buen estado. Como referencia: cintas elásticas, palos, cojines, aros …
3. Enpresa esleipendunak pertsona bat izendatuko du Kulturnieta SArekin harremanetarako.	4. La empresa adjudicataria designará una persona de contacto con Kulturnieta, S.A.
4. Enpresa esleipendunak eskaintzen diren zerbitzuen ebaluazioa aurkeztu beharko du ikasturte amaieran: - Emandako ikastaroen balorazioa eta hobetzeko proposamenak.	5. La empresa adjudicataria deberá presentar al final del curso una evaluación de los servicios ofertados: - Valoración de los cursos impartidos e propuestas de mejora.
Orientazio gisara, aurreko ikasturteetako datuak hauek izan dira: ***2018/2019 ikasturtea:*** *-Gazte funky: 8 talde (240 ordu)* ***2019/2020 ikasturtea:*** *-Gazte funky: 9 talde (270 ordu)* ***2020/2021 ikasturtea:*** *-Gazte funky: 3 talde (90 ordu)*	A título orientativo, los datos de cursos anteriores han sido los siguientes: ***Curso 2018/2019:*** *- Gazte funky: 8 grupos (240 horas)* ***Curso 2019/2020:*** *- Gazte funky: 9 grupos (270 horas)* ***Curso 2020/2021:*** *- Gazte funky: 3 grupos (90 horas)*

BORRADOR

4.2. - 2 LOTEA: UUAT	***4.2. – LOTE 2: UUAT***
Urnietako Udal Antzerki Tailerraren kudeaketa eta gauzatzea.	*Gestión y ejecución del Taller Municipal de Teatro de Urnieta.*
UUATen EZAUGARRIAK	**Características de UUAT**
Antzerki teknikak garatzeko Udal antzerki tailer amateurra da. Ikasturtean zehar antzezlan bat lantzen da eta amaieran jendaurrean aurkezten da.	Taller de teatro municipal amateur para el desarrollo de técnicas teatrales. A lo largo del curso se trabaja una obra de teatro y al final se presenta públicamente.
Ikasturteko antzerki programa bezala gauzatzen da.	Se realiza como programa teatral del curso.
Tailerra gidatuko duen pertsonak zuzendari lanak egingo ditu. Ikastaroa emateaz gain, landuko den antzezlana zuzenduko du.	La persona que dirija el taller actuará como directora del mismo. Además de impartir el curso, dirigirá la obra que se va a trabajar.
UUAT, helduei zuzendua dago.	El UUAT está dirigida a personas adultas.
Tailerreko partaideen gutxieneko kopurua matrikulaketa amaitzean erabakiko du Kulturnieta S.A.k. Gutxieneko ikasle kopurua egon ezean, bertan behera geratuko da tailerra.	Kulturnieta S.A. decidirá el número mínimo de participantes en el taller al finalizar la matriculación. En el caso de que no haya un número mínimo de alumnos/as, se suspenderá el taller.
ESKAINI BEHARREKO ZERBITZUAK eta BETEBEHARRAK	**SERVICIOS Y OBLIGACIONES A PRESTAR**
Antzerki tailerra eskaintzearen zerbitzuaren baitan ondorengo lan eta betebehar hauek sartuko dira:	*El servicio de oferta del taller de teatro comprenderá los siguientes trabajos y obligaciones:*
1. Aurreko ikasturteko antzerki tailerraren ebaluaketan oinarrituta, hurrengo urteko tailerrerako proposamen bat diseinatu, eta Kulturnieta SAri bere onarpenerako aurkeztu ikasturtea hasi aurretik. Proposamenak antzezlan baten lanketa eta horren ekoizpena barneratuko ditu.	1. A partir de la evaluación del taller de teatro del curso anterior, diseñar una propuesta para el taller del año siguiente y presentarla para su aprobación a Kulturnieta, S.A. antes del comienzo del curso. La propuesta incluirá la elaboración de una obra de teatro y su producción.
2. Onarturiko proposamena garatu eta tailerra ematea.	2. Desarrollo de la propuesta aprobada e impartición del taller.
3. Antzezlana jendaurrean aurkeztu ikasturte amaieran.	3. Presentar la obra públicamente al final del curso.

BORRADOR

4. Esleipendunaren betebeharra izango da antzerki tailerra gauzatzeko material egokia jartzea. Baita antzezlanaren ekoizpenerako beharrezko materiala jartzea ere: jantziak, atrezzoa…	4. Será obligación del adjudicatario la colocación del material adecuado para la realización del taller de teatro. Así como el material necesario para la producción de la obra: vestuario, atrezzo …
5. Enpresa esleipendunak pertsona bat izendatuko du Kulturnieta SArekin harremanetarako.	5. La empresa adjudicataria designará una persona de contacto con Kulturnieta, S.A.
6. Enpresa esleipendunak eskaintzen diren zerbitzuen ebaluazioa aurkeztu beharko du ikasturte amaieran: - Emandako ikastaroen balorazioa eta hobetzeko proposamenak.	6. La empresa adjudicataria deberá presentar al final del curso una evaluación de los servicios ofertados: - Valoración de los cursos impartidos y propuestas de mejora.
Orientazio gisara, aurreko ikasturteetako datuak hauek izan dira: ***2018/2019 ikasturtea:*** *81 ordu* ***2019/2020 ikasturtea:*** *81 ordu* ***2020/2021 ikasturtea:*** *70 ordu*	A título orientativo, los datos de cursos anteriores han sido los siguientes: ***Curso 2018/2019:****81 horas* ***Curso 2019/2020:****81 horas* ***Curso 2020/2021:*** *70 horas*
4.3.- 3 LOTEA: Arte eta kultura ikastaroak	***4.3.- LOTE 3: Cursos de arte y cultura***
Arte eta kultura ikastaroen kudeaketa eta gauzatzea.	*Gestión y realización de cursos de arte y cultura.*
ARTE ETA KULTURA IKASTAROEN EZAUGARRIAK	**CARACTERISTICAS DE LOS CURSOS DE ARTE Y CULTURA**
Arte plastiko, bisual eta artisautza teknikak garatzeko ikastaroak dira: zur taila, eskulanak, joskintza, marrazketa eta pintura...	Cursos para el desarrollo de técnicas de artes plásticas, visuales y artesanías: talla de madera, manualidades, costura, dibujo y pintura...
Urritik maiatzera artean gauzatuko dira astelehenetik ostiralera.	Se realizarán de lunes a viernes de octubre a mayo.
Ikasturteko iraupena duten ikastaroak izan arren, hiru zatitan ematen dira: **-Lehen hiruhilekoa:** urritik abendura **-Bigarren hiruhilekoa**: urtarriletik martxora **-Hirugarren hiruhilekoa**: martxotik maiatzera	**Aunque se trata de cursos de duración de un curso, se imparten en tres partes:** **-Primer trimestre:** octubre-diciembre **-Segundo trimestre**: enero a marzo **-Tercer trimestre:** de marzo a mayo
Ikasleak aukera du hiruhilekoa amaitzean ikastaroan jarraitzeko edo ez jarraitzeko.	El alumnado podrá continuar o no el curso al finalizar el trimestre. Se mantiene la

BORRADOR

Ikastaroen eskaintza berdina mantentzen da ikasturte osoan, eta ikastaroak urritik ekainera emateko programatuko dira.	misma oferta de cursos durante todo el curso y se programarán para impartirlos de octubre a junio.
Eskaeraren arabera, maila desberdinetan emango dira ikastaroak: hastapen mailatik hasi eta maila aurreratura arte.	En función de la demanda, los cursos se impartirán en diferentes niveles, desde el nivel de iniciación hasta el nivel avanzado.
Ikastaroetako talde kopurua matrikulaketaren arabera zehaztuko da. Taldeko ikasleen gutxieneko eta gehieneko kopurua matrikulaketa amaitzean erabakiko du Kulturnieta SAk da. Gutxieneko ikasle kopurua egon ezean, bertan behera geratuko da ikastaroa.	El número de grupos de los cursos se determinará en función de la matriculación. El número mínimo y máximo de alumnos y alumnas del grupo será el que decida Kulturnieta, S.A. al finalizar la matriculación. En caso de no existir un número mínimo de alumnado, el curso será suspendido.
ESKAINI BEHARREKO ZERBITZUAK eta BETEBEHARRAK	**SERVICIOS Y OBLIGACIONES A PRESTAR**
Arte eta kultura ikastaroak eskaintzearen zerbitzuaren baitan ondorengo lan eta betebehar hauek sartuko dira:	*El servicio de impartición de cursos de arte y cultura incluirá los siguientes trabajos y obligaciones*:
1. Esleipendunaren betebeharra izango da arte eta kultura ikastaroak ematea.	*1.* Será obligación del adjudicatario impartir los cursos de arte y cultura.
2. Egutegiak eta ordutegiak proposatu.	2. Proponer calendarios y horarios.
3. Esleipendunaren betebeharra izango da arte eta kultura ikastaroak gauzatzeko material egokia jartzea eta material hau egoera onean mantentzea ere. Erreferentzia gisara: josteko makinak, kabaileteak, guraizeak, zerrak... Gaur egun Kulturnieta SAk dauzkan josteko makinak esleipendunarentzat erabilgarri utziko ditu baina esleipendunak egin beharko du mantenuaren kargu.	3. Será obligación del adjudicatario la colocación del material adecuado para el desarrollo de los cursos de arte y cultura, así como su mantenimiento en buen estado. Como referencia: máquinas de coser, caballetes, tijeras, sierras... Las máquinas de coser de las que actualmente dispone Kulturnieta, S.A. serán puestas a disposición del adjudicatario, quien deberá hacerse cargo de su mantenimiento.
4. Enpresa esleipendunak pertsona bat izendatuko du Kulturnieta SArekin harremanetarako.	4. La empresa adjudicataria designará una persona de contacto con Kulturnieta, S.A.
5. Enpresa esleipendunak eskaintzen diren zerbitzuen ebaluazioa aurkeztu beharko du ikasturte amaieran:	5. La empresa adjudicataria deberá presentar al final del curso una evaluación de los servicios ofertados:

BORRADOR

- Balantze kuantitatiboa, Excelean: erabiltzaileen datuak (kopurua eta mota). - Asebetetze galdetegiaren datuak landuta. - Emandako ikastaroen balorazioa eta hobetzeko proposamenak.	- Balance cuantitativo en Excel: datos de usuarios (cantidad y tipología). - Datos del cuestionario de satisfacción tratados. - Valoración de los cursos impartidos con propuestas de mejora.
Orientazio gisa, aurreko ikasturteetako datuak hauek izan dira:	A título orientativo, los datos de cursos anteriores han sido los siguientes:
2018/2019 ikasturtea: *-Marrazketa eta pintura: 2 talde (95 ordu)* *-Eskulanak: talde 1 (54 ordu)* *-Zur taila: talde 1 (54 ordu)* *-Joskintza: 3 talde (162 ordu)*	***Curso 2018/2019:*** *- Dibujo y pintura: 2 grupos (95 horas)* *- Manualidades: 1 grupo (54 horas)* *- Talla de Madera: 1 grupo (54 horas)* *- Costura: 3 grupos (162 horas)*
2019/2020 ikasturtea: *-Marrazketa eta pintura: talde 1 (36 ordu)* *-Eskulanak: talde 1 (36 ordu)* *-Zur taila: talde 1 (36 ordu)* *-Joskintza: 3 talde (108 ordu)*	***Curso 2019/2020:*** *- Dibujo y pintura: 1 grupo (36 horas)* *- Manualidades: 1 grupo (36 horas)* *- Talla de Madera: 1 grupo (36 horas)* *- Costura: 3 grupos (108 horas)*
2020/2021 ikasturtea: *-Marrazketa eta pintura: talde 1 (30 ordu)* *-Eskulanak: talde 1 (30 ordu)* *-Zur taila: talde 1 (30 ordu)* *-Joskintza: 2 talde (74 ordu)*	***Curso 2020/2021:*** *- Dibujo y pintura: 1 grupo (30 horas)* *- Manualidades: 1 grupo (30 horas)* *- Talla de Madera: 1 grupo (30 horas)* *- Costura: 2 grupos (74 horas)*

BORRADOR

BORRADOR